

**2009KO EKANAREN 26N UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia

HILABETEA: Ekaina

URTEA: Bi mila eta bederatzi.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Arantza Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2009ko maiatzaren 14an egindako ohiko batzarraldiko akta onartzeko proposamena.

Aho batez onartu da.

2.- UDAL TALDEAREN IZEN BERRIA.

Ezagutzera eman da, 2009ko ekainaren 23ko datarekin ondorengo idatziak sarrera izan duela:

“Idatzi honen bitartez, Jon Kortaberria, Juan Martin Aldareguia eta Josi Insausti zinegotziok udal taldearen izen aldaketa erabaki dugu. Aurrerantzean hiru zinegotziok ALKARBIDE UDAL TALDEA izena erabiliko dugu udalaren ezagutzarako.”

3.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA:

a.- 20 arearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko behin betiko onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak 2009ko ekainaren 8ko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 20 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespena ematea.

AURREKARIAK

I.- Udalbatza Osoak 2009ko martxoaren 5ean, legeak ezartzen duen quorumarekin ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenik. 20 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari behin behineko onespena ematea, hasierako onespenerikiko aldaketarik gabe.

Bigarren. Erabaki honen berri, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen berri ematea eta dokumentu hau bidaltzea, txostena eman dezan.”

II.- 2009ko maiatzaren 15eko datarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen erabaki-ziurtagiria jaso da, adieraziz ez dagoela inolako eragozpenik aipatutako espedienteak onartzeko. Aldi berean Euskal Herriko Ur-agentziaren txostena atxikitzen du.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 20 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespena ematea, adieraziz ibilguaren zaintza eremuan obrak egiteko, aldeztatik Administrazio Hidraulikoaren baimena eskatu behar dela.

Bigarren. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen kopia bat igortzeaz gain, espediente osoa behar bezala diligentziatuta ere bidaltzea paperean eta behin betiko onespena duen dokumentua informatikoki ere diligentziatuta bidaltzea.

Hirugarren. Gipuzkoako Foru Aldundia ere dokumentua diligentziatuta bidaltzea, foru erregistroan gordetzeko.

Laugarren. Behin betiko onespeneren erabakia probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratzea eta onartutako xehetasunekin batera Gipuzkoako Foru Aldundian ere argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- Itola II, 48 arearekiko Aurrerakina onartzea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak 2009ko ekainaren 22ko proposamenaren berri eman du:

“Gaia : Arau Subsidiarioen aldaketa: Itola II, 48 area.

Abiadura handiko Trenaren trazatuaren eta Itola I, 6. Sektorearen ondoan eta honen jarraian zoru industrial kalifikazioa duen, Itola II 48 area klasifikatzeari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketaren dokumentua aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90. artikularen arabera, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako dokumentuaren Aurrerakina eta Ingurumen eragina Osorik Ebaluatzeko Azterketa onartzea.

Bigarren. Bi hilabeteko epean jendaurrean jarriko da, lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian iragarkiak argitaratuz.

Hirugarren. Informazioa eskatzea Eusko Jaurlaritzan eta Foru-aldian babes zibilaren ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko.

Laugarren. Aurrerakina udal mugakideetara bidaliko da ezagutu dezaten.

Bosgarren. Ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari buruzko prozedurari hasiera ematea eskatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

c.- Ingurune berdearekiko Aurrerakina onartzea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak 2009ko ekainaren 22ko proposamenaren berri eman du:

“Gaia : Arau Subsidiarioen aldaketa (ingurune berdea).

Landa inguruneari lotuta dagoen oinezkoentzako bidearekiko Arau Subsidiarioen aldaketaren dokumentua aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90. artikulua araberak, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako dokumentuaren Aurrerakina eta Ingurumen eragina Osorik Ebaluatzeko Azterketa onartzea.

Bigarren. Bi hilabeteko epean jendaurrean jarriko da, lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian iragarkiak argitaratuz.

Hirugarren. Informazioa eskatzea Eusko Jaurlaritzan eta Foru-aldian babes zibilaren ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko.

Laugarren. Aurrerakina udal mugakideetara bidaliko da ezagutu dezaten.

Bosgarren. Ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari buruzko prozedurari hasiera ematea eskatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ENKARGUA EMATEA. Beasain Lantzen, S.A.ren alde enkargua ematea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak 2009ko ekainaren 8ko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Beasain Lantzen, S.A.ren alde enkargua egitea.

Kontuan izanik:

1.- Arau Subsidiarioen egokitze eta berrikuntzaren Testu Bateratuaren 20. Areari buruzko alaketarekin, jarduera isolatuko (A.A.20) zoruaren titularitatea aldatu egiten da, eraiki behar diren garajeen ondarezko izaera ezarriz, modu librean saldu ahal izateko.

2.- Beasain Lantzen, S.A.ren helburu soziala ondorengoa dela:

“etxebizitzetarako zorua sustatu, ordenatu, urbanizatu, erosi eta saldu. Halaber, babes ofizialeko nahiz prezio tasatua duten etxebizitzak sustatu, proiektatu, eraiki, erosi, saldu edo beste eratan laga eta baita Beasain eta Beasaingo biztanleriaren onurarako eraikin industrialak, zerbitzuenak eta erabilera publiko eta pribatua izan dezaketen herritarrentzako zuzkidurak.”

Hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasain Lantzen, S.A.ri ondorengoa enkargatzea:

- 20 Areako jarduera isolatuan eraiki beharreko garajeak sustatzea eta saltzeko kudeaketak egitea.

Bigarren. Ebazpen honen berri Beasain Lantzen, S.A.ri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- HITZARMENA. Manufacturas Olan, S.A.rekiin sinatutako hitzarmena bertan behera uztea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak 2009ko ekainaren 22ko proposamenaren berri eman du:

“GAIA: HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA

Honekin batera doan dokumentuaren edukia aztertu ondoren, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. 2002ko abenduaren 20an Udalaren eta Manufacturas Olan-en artean sinatutako hainbat klausula bertan behera uzteari buruzko dokumentuaren edukia onartzea.

Bigarren. Alkate jaunari aipatutako dokumentua sinatzeko baimena ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena. Aipatutako dokumentuaren edukia ondorengo da:

“BILDURIK

Patxi PLAZAOLA jauna, Beasaingo Udaleko Alkate-Udalburu dena eta NA zenbakia duena,

Rafael ARAMBURU AUZMENDI jauna, adinez nagusia, ezkondua, NA 14.964.428 zenbakia duena eta kontratu honetarako Beasaingo (Gipuzkoa) Jose Migel Iturriotz kaleko 15 zenbakian bizilekua duena.

Pedro RISUEÑO MORENO jauna, adinez nagusia, NA 22.415.575 zenbakia duena eta kontratu honetarako Beasaingo (Gipuzkoa) Martina Maiz kaleko 3 zenbakian bizilekua duena.

Francisco JIMENEZ PEREZ-MUELAS jauna, adinez nagusia, ezkondua, NA 23.196.754 zenbakia duena eta kontratu honetarako Beasaingo (Gipuzkoa) Jose Migel Iturriotz kaleko 15 zenbakian bizilekua duena.

PARTE HARTU DUTE

Patxi PLAZAOLA jauna, Beasaingo udalaren izenean eta haren ordezt.

Rafael ARAMBURU AUZMENDI jauna, xede honetarako Beasaingo (Gipuzkoa) Jose Migel Iturriotz kaleko 15 zenbakian bizilekua duena eta E-20116588 IFK zenbakia duen HERMANAS OLARAN Ondasun-erkidegoaren izenean eta haren ordezt

Pedro RISUEÑO MORENO jauna, ahaldu gisa, Beasainen (Gipuzkoa) Esteban Lasa kaleko 4 zenbakian egoitza duen eta Felix Ruiz Cámara Notarioaren aurrean 1974ko uztailaren 4an eratutako eskrituraren arabera 941 protokolo zenbakia duen PROMOTORA DEL GOIHERRI S.A.-ren izenean eta haren ordezt Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan 264 Liburukian, 1 Orrian 5.110 Orrialdean inskribatuta dagoen eta A-20041612 Identifikazio Fiskalerako Zenbakian duena.

Francisco JIMENEZ PEREZ-MUELAS, MANUFACTURAS OLARAN merkataritza-sozietatearen izenean eta haren ordezt, eta bide batez, MANUFACTURAS OLARAN SA administratzen duen BEGUI URDIN S.L.-ren ordezt, Felix Ruiz Camara Donostiako Notarioaren aurrean 1972ko urtarrilaren 21ean eratutako eskrituraren arabera eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan 1.178 Liburukian, 71 Orrian eta SS-3543 Orrialdean inskribatuta dagoena

AURREKARIAK

2002 uztailaren 24an hemen ordezkaturak azaltzen direnek, Beasaingo Udalaren eta MANUFACTURAS OLARAN Saren arteko Hirigintza Hitzarmen bat izenpetu zuten, Beasaingo Arau Subsidiarioen araberrako 4 HE-ko S.41 sektorearen hirigintza-garapenari eta MANUFACTURAS OLARAN Saren enpresa jarduera 8. Sektorera lekualdatzeari buruzkoa.

Hirigintza hitzarmen horretan aurreikusitako ordenamenduaren hirigintza-garapenean eta 4 HE-ko 4.1. E.U.-an Arau Subsidiarioetako elementuen Aldaketa Puntulean izan diren zailtasunen ondorioz, 2002ko abenduaren 20an Hirigintza Hitzarmen berri bat sinatu zen oraingoan PROMOTORA DEL GOHIERRI SA merkataritza-enpresa eta jabea den HERMANAS OLARAN CB ere barne zituela eta beste batzuen artean ondoko akordio hau hartu zen:

- *2004ko iraila baino lehen MANUFACTURAS OLARAN SA-k bere jarduera lekualdatuko zuela eta epe hori 2005eko irailaren 15a bitartean luzatu zitekeela.*
- *MANUFACTURAS OLARAN SA-k 120.000 euro ordainduko zizkiola jarduera Jose Migel Iturriotz kaletik lekualdatzeak eragiten duten aldaketek dakartzan hirigintza kostuak (bidea eta ibai ondoko espaloia) ordaintzeko ekarpen kontzeptuan, eta honekin kitatutzat emango lirateke aipatutako elkarteak Beasaingo Udalarekin, 1994ko urtarrilaren 18ko data duen Hitzarmenean hartutako konpromiso ekonomikoak.*
- *MANUFACTURAS OLARAN SA-k 24.000,48 euro ordaintzea espazio libreko sistema orokorreko lurak lortzeko kontzeptuan, lur horiek 4 HE-ko Arau*

Subsidiarioen aldaketa puntualean gehitu ziren, lehen aurreikusitako etxebizitza kopurua legeak hala eskatuta hazi egin zelako.

Hirigintza hitzarmen hauetan parte hartu duten bi aldeekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik MANUFACTURAS OLARAN SA merkataritza enpresari ezinezkoa izan zaio Hitzarmenean adostutako lekualdaketa egitea. Hitzarmena sinatu zenetik gaur arte pasa den denbora luze honetan, MANUFACTURAS OLARAN SA merkataritza-enpresak arrazoi ekonomikoak medio bere jarduera amaitzeko eta likidatzeko prozesuari ekin baitio.

Gaur egun, MANUFACTURAS OLARAN SA-k eskunduntza duen Lan Agintaritzaren aurrean Jardudera amaitu delako desagertzeko Lan Erregulazio Espedienteak aurkeztu du. Era berean, izakinak likidatze prozesuari eta makineria saltzeari ekin dio.

Honengatik guztiagatik,

ADIERAZTEN DUTE:

HERMANAS OLARAN CB-k 2009ko urriaren 10a baino lehen emango dizkio PROMOTORA DEL GOHIERRIri gaur egun okupatuta dituen pabiloi guztiak, batere tresneriarik, merkantziarik, makineriarik eta erremintarik gabe, merkataritza enpresa honek eskritura publikoaren bidez katalogatutako pabiloia Beasaingo Udalari eman diezaion, Administrazio honi dagokion 4 HE-ren hirigintza-aprobetxamenduaren %10aren konpentsazio gisa.

Alde guztiek onartzen dute pabiloia entregatzeko eman den atzerapena ezinbesteko arrazoiengatik izan dela, eta ondorioz bertan daudenek ez dute inolako arrazoirik inolako kontzeptutan kalte-ordainik eskatzeko ez MANUFACTURAS OLARAN S.Ari ez HERMANAS OLARAN CB-ri.

HERMANAS OLARANek Udalarena den 2101 0298 65 000008911 kontu zenbakian 120.000 eta 24.000,48 euro sartuko ditu agiri hau sinatzen den egunetik kontatzen hasita sei hilabeteko epean, lehen aipatutako kontzeptuen ordainketa gisa.

Eta ondorioz, pabiloia eman ondoren, bai MANUFACTURAS OLARAN SAK bai HERMANAS OLARAN CB-k betetzat emango dituzte orain arte sinatutako Hitzarmenetan hartutako konpromisoak.

Eta ados dauden seinale sinatu eta berresten dute, Beasainen bi mila eta bederatziko ekainaren hamaikan.”

6.- KREDITU ALDAKETAK:

a.- Kreditu gehigarriak

Alkate jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Kreditu Aldaketa. 7. Kreditu Gehigarrien Espedienteak.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udaltzatari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 7. Kreditu gehikuntzen bidez 200.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila/ Partida Presupuestaria	Kontzeptua / Concepto	Kredituak / Créditos		
		Egunoak / Actuales	Aldaketak / Modificaciones	Behin betikoak / Definitivos
1.5000.601.511.10.01	Azp. eta urb.: Kale Nagusia oinezk. Egokitzea 1. fasea / Inf. y urb.: Peatonalización Kale Nagusia 1ª fase.	1.200.000,00	200.000,00	1.400.000,00
GUZTIRA / TOTAL		1.200.000,00	200.000,00	1.400.000,00

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos	Baliabidearen kontzeptua / Concepto del recurso	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak / Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos
1.5000.601.511.10.01.2008	Azp. eta urb.: Iturralde plaza/ Inf. y urb.: Plaza Iturralde	90.000,00

2.0000.870.000.00.01	Kreditu gehigarriak finantz.: Diruzaintzako gerak. / Remanente tesorería Cdtos. Adicionales	110.000,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS		200.000,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- Kreditu transferentziak

Alkate jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

AURREKARIAK

Igartzako monumentu multzoa osatzen du, beste batzuen artean, DOLAREA izeneko higiezinak. Multzoko gainontzeko eraikinak Udalak zaharberritu ditu edota zaharberritzen ari da, horretarako hainbat erakundetatik laguntzak jaso ditu.

Dolarearen kasuan, ordea, ostalaritzarako eta hotel zerbitzueterako erabiltzea egoki ikusi zen, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren aldeko irizpidearekin, horrela jarduera ekonomikoaren garapenak, higiezin horrek historikoki izandako ostatu erabilera betetzeaz gain, jardueraren titularrari zaharberritze lanak bere kargura egiteko betebeharra jartzea, ustiapenetik lortutako etekinaren truke, ahalbidetzen da.

Helburu horrekin, 2006ko uztailaren 20an, Udalbatzak egindako ohiko batzarraldian, Dolarea eraikina zaharberritzeko IZTAU, S.L.k idatzitako eta 2.047.807,40 euroko aurrekontua duen Oinarrizko Proiektua onartzea eta deialdi publikoa egitea erabaki zuen, Beasaingo Dolarea eraikina errentamenduan emateko, esleipendunak bere aldetik ostalaritzako eta hotel zerbitzua emateko egokitu zezan eta ondoren ustiatu zezan, horretarako baldintza pleguak onartuz. 2007ko otsailaren 1eko Udalbatzarren aktan jasotzen den bezala, 5 edo 6 enpresek lizitazioan interesa azaldu arren, azkenean adjudikaziodun gertatu zena aurkeztu zen bakarrik eta adjudikazio

erabakia hartu zen, eragiketa lizitatzailleentzat oso garestia izan zitekeela jakin arren.

Udalak kontratua adjudikatu zuen Oinarrizko Proiektuaren, onartutako baldintza administratiboen pleguaren eta lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzaren arabera. Lizitatzailleek egindako eskaintzatik kanpo gelditu ziren, beste batzuen artean, lurrazpiko aparkalekuak egiteko proposamena, erabilpen hori planeamenduan aurreikusi gabe zegoenez eremu horretan.

Udalak, ordea, jakinik aparkalekuak izateak eraikinari emango liokeen balio erantsia, ez bakarrik hoteleko bezeroei emango litzaiekeen zerbitzu hobearengatik, baizik eta zoruko aparkaleku publikoak ez gutxitzea izango lukeelako ondorioa, kontratua sinatu ondoren, Arau Subsidiarioak aldatu zituen eta duela gutxi Dolarea ondoko lursailaren azpian, baina bertan burutu nahi den jarduerari lotutako, ekipamendu horren gauzatzea ahalbidetzen duen Plan Berezia onartu du (2009ko urtarrilaren 8ko GAO).

Bitartean zaharberritze lanak hasi ziren eta eraikinaren egitura bermatu ondoren, adjudikaziodunekin zerikusirik ez duten eta aurreikusi ezinezkoak diren gertakariak, egungo krisi ekonomikoaren ondoriozkoak, aipatutako lanak burutu eta jarduera martxan jartzeko beharrezkoa den finantziazioa lortzea oztopatzen dute.

Horren guztiaren ondorioa, adjudikaziodunarentzat nola higiezin historikoaren jabe den Udalarentzat, kaltegarria gertatzen den nahitaezko gelditzearen kalteak dira, hau da:

1.- Adjudikaziodunek ezin dute aurreikusitako jarduera burutu eta beraz ezinezkoa dute egindako inbertsioa berreskuratzea.

2.- Udalak ez du lortzen bere helburua, alegia, Dolarea eraikin historikoa zaharberritzea eta Igartzako monumentu multzoa bere osotasunean berreskuratzea herritarren gozamenerako.

Bizi dugunaren gisako krisi egoeretan, hauen efektuak gutxitzeko soluzioak aurkitzen saiatzen dira Gobernuak. Udalek ere ezin dute ihes egin bizitzea tokatzen ari zaigun uneen errealitatetik, are gehiago, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik.

Beraz, aipatutako garaje plazak, Oinarrizko Proiektuan jasota ez zeudenez, lehiaketaren adjudikaziodunekin sinatutako errentamendu kontratuaren euskarri den Oinarrizko Proiektuan, egokia eta bidezkoa ikusten da, lan horiek Udalak kontratatzea, horrela ahalbidetuko baita:

1.- Eraikina birgaitzeko lanen geldialdia haustea, adjudikaziodunek bere gain hartu beharreko kostua txikiagoa izango denez.

2.- Interes publikoaren alde Igartza ondasun historiko-artistikoaren berreskuratzea.

3.- Jarduera martxan jartzeak, aldi berean, bizi dugun garaian hain eskasa den enpleguaren sorkuntza ekarriko du.

Azaldutako aurrekarien arabera, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik.- Honekin batera doan proposamenena zehazten diren partiden arteko kreditu transferentzien bidezko kreditu aldaketa espedientearen onartzea:

Transferitzen diren kredituen gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
1.4200.682.453.00.01	Ondare ondas. inbertsioak.: Igartzako jauregia	1.000.000,00	350.000,00	650.000,00
GUZTIRA ...		1.000.000,00	350.000,00	650.000,00

Gehitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1.4200.622.453.00.01	Dolareako lurrazpiko aparkalekuak	0,00	350.000,00	350.000,00
GUZTIRA ...		0,00	350.000,00	350.000,00

Bigarren.- Erabaki honen berri Kontuhartzailtza zerbitzuari ematea onartutako kreditu aldaketak berehalako efektuak izan ditzan kontabilitatean.

Alkateak ondorengo adierazi du: garaiekin egin eta gero Dolarea ustiatzeko adjudikaziodunari emango zaizkio, kanon baten ordainetan.

Lehengo astean Eusko Jaurlaritzako kultura Departamentuko ebazpena jaso zen, adieraziz Igartza Jauregia zaharberritzeko 240.000 €ko dirulaguntza jasoko genuela. Beraz, kontutan izanda, bigarrenengo faseko obrak esleitzeko izan den baja eta aipatutako kopurua, ez da aurrekontu gehikuntzarik egin behar izango.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

PP eta EBko zinegotziek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Josi Insausti jaunak (Alkarbide): “zoritxarrez, ekonomiko egoera dela eta beste neurri berri bat hartu beharrean gaude. No es grato que una vez más se tengan que traer temas al pleno de este Ayuntamiento en función de la coyuntura económica, cuestión que a nosotros como grupo sí nos sorprende porque leemos constantemente que se están inyectando cantidades de dinero a las entidades bancarias para el empuje de las iniciativas empresariales. Nos encontramos que en Beasain tenemos una situación muy particular, que es la que estamos viendo hoy. A nosotros nos da por preguntarnos como una entidad bancaria puede ser el muro de contención o el muro contra el que hay que pelear para que una iniciativa, que todos consideramos como de riesgo, y que teniendo el aval de las instituciones y de los estudios de viabilidad, no pueda llevarse a cabo por el motivo citado. Es sorprendente, y por eso vamos a apoyar lo que aquí se presenta. Como grupo quisiéramos lanzar el siguiente mensaje: todavía hay mucha gente que tiene iniciativa, y los bancos poco arriesgan para que se puedan llevar a cabo. En el caso que nos ocupa, hay dos personas que se han embarcado en un proceso ambicioso, pero también posibilitará la creación de puestos de trabajo. No sólo corresponde al Ayuntamiento adoptar medidas. Hay que lanzar un mensaje de responsabilidad a quienes son facilitadores para que el emprendedor pueda poner en marcha su proyecto.”

Fernando Boada González jaunak (PSE-EE/PSOE): “nuestro grupo va a votar en contra. Ultimamente vemos que al Ayuntamiento llegan propuestas como la que discutimos hace unos días y también votamos en contra, como la de que nos gastamos 365.000 €, en una sociedad que se nos vendió como municipal y que después se demostró que era para los vecinos de un barrio, tal y como se refleja en el convenio que se firmó.

También se nos habla de concesiones y tenemos en mente la concesión del polideportivo que se planteaba en su día para dos años y al final es de mayor duración y se derivó hacia Beasain Lantzen, para ahorrarnos el IVA, y resulta que hemos pasado a pagar el 24% del impuesto de sociedades del dinero que recibimos tanto de Diputación como de recursos propios.

Estas cosas que se nos van vendiendo, en el sentido de que el Ayuntamiento tiene que facilitar, nosotros como partido en su día le dimos el visto bueno a la cesión del subsuelo, dado que se reconocía una obligación por parte del que había adquirido el compromiso de llevar adelante estas obras para desarrollar el hotel de Dolarea, que está obligado a tener unas plazas de aparcamiento, y dado que no tenía terreno para poder hacerlo, nosotros le íbamos a ceder el subsuelo posibilitando que en él se pudiera ejecutar el aparcamiento, previa modificación de las NN SS. Sin embargo, con lo que no estamos de acuerdo es que el Ayuntamiento tenga que gastarse 350.000 €, para luego ceder las plazas de garaje a una empresa privada. También se nos habla de un canon y que tal vez se le reducirá el tiempo del alquiler (en el caso del polideportivo también hay un canon y a día de hoy no estamos recibiendo nada). También se nos habla de una subvención extra para el conjuntode Igartza, pero no se nos dice que debido a que este dinero se va a utilizar en hacer estos aparcamientos por parte del Ayuntamiento, y luego cederlos a un particular va a suponer que se van a ralentizar lo que son las obras de urbanización del entorno de Igartza.

Nos gustaría saber si el Ayuntamiento está dispuesto a salvar todos aquellos negocios que en Beasain puedan estar pasándolo mal. Nosotros como Ayuntamiento podemos asumir ciertas obras y luego les cedemos, cobrándoles a todos un canon. No creo que eso sea lo correcto. Por todo ello, vamos a votar en contra.”

EAEko ordezkaria: “aitzakia hutsa da dirua ematea. Legeak dio hotel jarduera garatzeko aparkalekua izatea beharrezkoa dela. Prebisioak gainezka egin dute. Ez zaigu zuzena iruditzen. Eraikiin hori publikoa da eta herriarentzat izan behar du.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación

puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak (EAJ): “Conforme. En respuesta a Fernando Boada señalar lo siguiente. Estamos siguiendo la trayectoria de muchos ayuntamientos, entre ellos, socialistas, por ejemplo en Zumarraga, la gestión de ciertos servicios se está dando a Zumarraga Lantzen. En el caso que nos ocupa la diferencia es que se trata de un edificio de propiedad municipal y no se ha hecho la cesión del subsuelo, sino que se hará la cesión de los garajes cuando estos se hagan. Actuaciones similares, empezando con las propinas para coches particulares, también se están extendiendo. En el caso de Bista Alai, también indirectamente nosotros hemos actuado para salvar una operación de cierto riesgo y por lo tanto teniendo en cuenta que esto va a generar dieciocho empleos y es un proyecto avalado por la Consejería de Turismo del Gobierno Vasco, creemos que nuestra aportación es necesaria para que tengamos un equipamiento de calidad que de servicio al pueblo y que genere empleo. Por eso, nosotros lo vamos a apoyar.”

Horren ondorioz, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da.

Aldeko botoak: 11(EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)

Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Etorri gabea: 1

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

7.- TARIFAK. Musika Eskolaren 2009-2010 ikasturterako tarifak.

Arantxa Gibelalde, Hazienda Batzordeko Lehendakariak, ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2009-2010 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespena.

Hazienda Batzordeak 2.009ko ekainaren 22an egindako bileran, Beasaingo Loinatz Musika Eskolako Batzorde Errektoreak proposatutako eta 2009-2010 ikasturtean Musika Eskolako irakaskuntza zerbitzuengatik aplikagarri izango diren tarifen onespena proposatzen dio Udalbatzari:

	<u>Urteko kuota/ Cuota anual</u>
MUSIKA TAILERRA TALLER MUSIKAL	170,00 €
HASTAPENA INICIACION	215,00 €
INSTRUM. + M. LENGOAIA II. MAILA INSTRUM. + LENGUAJE MUSICAL NIVEL II	585,00 €
INSTRUM. + GAI TEORIKOA III. MAILA INSTRUM. + MATERIA TEORICA NIVEL III	620,00 €
M. L. + PANDERO EDO + KANT TALD L.M. + PANDERO O + CANTO GRUPAL	430,00 €
M. LENGOAIA LENGUAJE MUSICAL SIN INSTRUMENTO	215,00 €
GAI TEORIKOAK MATERIAS TEORICAS	215,00 €
INFORMATIKA	215,00 €
INSTRUMENTUA II. MAILA	435,00 €
INSTRUMENTUA III. MAILA	457,50 €
TRIKITIXA	375,00 €
PANDEROA	265,00 €
KANTUA TALDEAN CANTO GRUPAL	195,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA PIANO + ACOMPAÑAMIENTO	680,00 €

PIANOA + AKONPAINAMENDUA + GAI TEORIKOA PIANO + ACOMPAÑAMIENTO + MATERIA TEORICA	820,00 €
BAKARLARI CANTO SOLISTA	457,50 €
IZENEMATEA 10-11 INSCRIPCION 10-11	35,00 €
MATERIALA	8,00 €

